

GETARIAKO INKESTA

Deskribapena: Kike, Getariako kaleetan zehar jendeari galdezka agertzen da.

Kike: “Aizue, eta zuek txisteak eta umorezko gauzak ze hizkuntzetan kontaktzen dituzue?”

Lehenengo bikotea: “Bitan, erderaz ta euskeraz.”

Lehenengo gizonzkoa: “Euskeraz.”

Kike: “Bai?”

Lehenengo gizonzkoa: “Bai, bai, dana!”

Bigarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Nik erderaz.”

Hirugarren bikoteko emakumezkoa: “Euskeraz.”

Bigarren bikoteko bigarren emakumezkoa: “Batzutan euskeraz.”

Hirugarren bikoteko gizonzkoa: “Nik ez det kontaktzen.”

Bigarren gizonzkoa: “Normalian gaztelaniaz.”

Kike: “Zuk edo zure ingurukoak esate baterako, txisteak ze hizkuntzetan kontaktzen dituzue?”

Lehenengo emakumezkoa: “Ba, normalen, erderaz.”

Hirugarren gizonzkoa: “Euskeraz jeneralen, eta nik neuk batez porque ez nau zalia, egia esan.”

Laugarren gizonzkoa: “Euskeraz.”

Kike: “Bai? Normalian bai?”

Laugarren gizonzkoa: “Bai, bai, normalian bai, hemen bai.”

Bosgarren gizonzkoa: “Euskeraz.”

Kike: “Euskeraz bai?”

Bosgarren gizonzkoa: “Bai.”

Kike: “Eta maldizioak eta haserretzen zaretenean?”

Lehenengo bikotea: “Erderaz.”

Lehenengo gizonezkoa: “Erdaldunez edo kastellanoz, edo.”

Bigarren bikotea: “Uiii, euskeraz. Hori euskeraz.”

Kike: “Bai?”

Bigarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Bai, bai, beti.”

Hirugarren bikoteko gizonezkoa: “Erderaz, bai, bai.”

Kike: “Eta maldizioak eta ze hizkuntzetan?”

Bosgarren gizonezkoa: “Maldizioak, madrilenoz, espainolez!”

Kike: “Beti?”

Bosgarren Gizonezkoa: “Beti!”

Bigarren gizonezkoa: “Maldizioak euskeraz ez daude berez, ez?”

Kike: “Eta hori zergatik?”

Bosgarren gizonezkoa: “Ez dakit ba, halaxe ohitu gealako.”

Kike: “Eta haserretzen zeratenian, maldizioak eta holako...”

Laugarren gizonezkoa: “Hitz batzuk baditugu erdaldunak eta batzutan erdaldunak ere bai. Baina bestela euskeraz ahal baldin bada.”

Hirugarren gizonezkoa: “Usteit euskeraz gehio neri.”

Lehenengo emakumezkoa: “Euskeraz ez dut uste maldiziorik dagonikan, e.”

Kike: “Ez?”

Lehenengo emakumezkoa: “Erderaz gehienian.”